


# PANDEMIAREN ITOLARRIAN



# LARRUN #252

# PENTSAMENDU ERRADIKALA SALBUESPEN EGOERAN

EGILEA | **JUAN GOROSTIDI BERRONDO**  
AZALA | **JOSEBA LARRATXE, JOSEVISKY**  
ARGAZKIAK | **DANI BLANCO**

**P**andemia heldu artean, “osasunaren aldeko” eta “gaixotasunaren aurkako” gerran, ia egunero heltzen zitzaizkigun frontetik berriak, onak gehienetan: botika berri baten onarpena, minbiziaren aurkako terapia berritzailea... Osasun (ia) perfektu baten aldekoa zen gure Ebanjelio Berria: gaixotasunaren eta izurri guztien amaiera iragartzen zuen bizitza eternal beti gazte baterantz ginderamatzan kohetea.

Gerra aipatu dut, agintarien hizkuntzari men eginez, eta gerra guztietan, *egia*, lehen gorpua. Ez dugu ur handietako murgilketa ho-

netatik onik ateratzeko pretentsiorik, beraz.

Hiru agertokiz arituko gara: bat, krisi sanitarioa; bi, pandemiaren iturria; eta hiru, lurrikara ekonomiko-produktiboa.

Bigarren atalean, prozesu honek azaleratu dituen zenbait eztabaida eta lerratze komentatuko ditugu. Jakinda ere berehalako erantzun edo erabakirik pertsonalena, eta gogoe-tarik “abstraktuena”, uste ohi dugun baino korapilo estuago batez daudela lotuak.

Osasunaren analogiari jarraiki, diagnostiko baten ondoren, pronostiko eta tratamendu politikoez arituko gara.

---

**LARRUN HILABETEKARI MONOGRAFIKOA** · ARGIAren 2.688 zenbakiarekin banatua.

**JABEA:** KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L. **HELBIDEA:** ZIRKUITU IBILBIDEA, 15. PABILOIA 20160 LASARTE-ORIA **TELEFONOA:** (00 34) 943 37 15 45

**POSTA ELEKTRONIKOA:** LARRUN@ARGIA.EUS **INPRIMATEGIA:** ANTZA KOMUNIKAZIO GRAFIKOA **DISEINUA:** MAITANE GARTZIANDIA

2020ko maiatzaren 31

---



# Pandemiaren agertokiak

## SISTEMA SANITARIOA

Osasun perfektuaren aurrean, larrialdiak tupustean aldatu du perzeptzio hura, eta barea zirudiena, enbatak jotako itsaso zakarra bihurtu zaigu. *Osasunbidean* geundenok, *Patogenian* murgildu gara modu *Pandemikoan*. *Pato* hori gaixotasuna da, baina baita *pathos* ere, patua. *Gen*, sortzea da. Patogenia: gaixotasuna sortzeko gaitasuna, baina baita destino bat sortzekoa ere. Pandemia: *Pan* (osoa) eta *demos* (herria): “Guztioi dagokiguna”, beraz.

Egunerokoak ahaztera bultza bagaitzake ere, hau ez da “osasun krisi bat” izaten ari, baizik eta sistema sanitarioaren krisia. Alarma guztiak piztu ziren, ez gaixotzen eta hiltzen ginelako, baizik eta ospitaleak eta gainontzeko azpiegituren kolapsoa aurreikusten eta gertatzen hasi zelako. Pandemia batek eragindako sistema sanitarioaren krisi bat bizi dugu, beraz.

Egoera horri aurre egiteko, bi diskurtso zabaltu ziren sistemaren barnetik. Onarpen zabaleneoak, ia bat-batekoak, “osasuna” eta “sistema sanitarioa” gauza bera eta bakarra bezala tratatzen ditu, eta dio: “Eraso bat dugu: birus berri batena; horren aurkako babes, sistema sanitarioa. Erasoa gaindituko da txertoa, ailegatzen denean. Bitartean ondo ezagutzen ditugun neurri pandemikoak zorrozki bete behar dira”.

Baina medikuen artean ere, hori erabat ukatu gabe –birusarena, pandemiarena– eztabaidak sortu ziren horri aurre egiteko neurrien inguruan. Laburbilduz: “Birusak heriotzaren azken eragile modura funtzionatzen du, baina ezin da sostengatu heriotzaren ‘arrazoi’ gisa”. Beraz, eta kontuan hartuta konfinamenduak berarekin dakartzkidan ondorio kaltegarriak –baita jende askoren osasunean ere–, zalantzazkoak dira

hartutako neurriak. Ñabardura hori laburbiltzeko, har genezake Europan bertan beste politika bat jarraitu duen herrialdea: Suedia. Nazioarteko Ekonomia Politikorako Europako Zentroko zuzendariaren hitzetan: “Entzierroaren teoriaren eraginkortasuna ez da frogatu eta, beraz, ez da Suedia masa-esperimentu bat egiten ari dena. Gainerako guztiak dira horretan ari direnak”.

Baina neurriak, hauek ala besteak, sekulako presiopean hartuak izan dira, eta abiarazi duten makinariak ez zuen ñabarduretako tartarik uzten. Iruñeko ZIUko sendagile baten hitzek labur bildu lezake egoera: “Gaixotasun oso larri baten aurrean gaude. Kasurik okerrenean, gertatutakoaz ohartzen ez bagara, litekeena da hurrengo urteetan etorriko denaren aurrerapena izatea: patogeno gero eta kutsagarriagoak eta hilgarriagoak.

Edozein gorabehera epidemiologikoren aurrean bizkor jarduteko prestatu behar dugu, eta horretarako, gure produkzio- eta bizi-modua aldatu. Osasun publiko sendoa, babes zibil egokia, jendearen beharren zerbitzurako industria farmazeutikoa eta ordezkatzeko duten gizartea errespetatuko duten lidergoak behar ditugu. Hori guztia gabe, egoera oso iluna da”. Baina aurretik, ohartarazten zuen: “Ospitaleekiko mendekotasuna erabatekoa da, eta konfiantza falta handia elkar zaintzeko dugun gaitasunean”.



## EPIDEMIAREN JATORRIA

Tamaina honetako krisi eta mobilizazioek tupustean gertatu denaren inpresioa sortzen dute; ekaitza lehertzen denean bezala. “Inork aurreikusi ezin zezakeen gaitzak” jo gaitu, diote agintariek. Badakigu, halere, kontuok iragarriak zeudela eta haien arrazoiak –gera biologikoak eta geopolitika aparte utzita– erraz ulertzeko moduko jatorri bat dutela: adiera bakarrean, “hondamendi ekologikoa” eta, zehatzago esanda, abeltzaintzaren eta elikagai-ekoizpen osoaren industrializazio intentsiboa, azken 5-6 hamarkadetan mundu mailako nekazaritzaren eta abeltzaintzaren bide bakar gisa inposatu dena. Ez gara jabetu, nonbait, hondamendia neurri esponentziale-tara pasa dela. Eraginak eta kalteak ez doazela batzen, biderkatzen eta potentziatzen baizik.

“Gaur egungo epidemiaren azpian dagoen birusa, bere 2003ko aurrekoa bezala, bai eta hegazti-gripea eta haren aurreko zerri-gri-

pea ere, ekonomiaren eta epidemiologiaren arteko loturan sortu zen... Gaixotasun berriak gizakiengana zabaltzea transferentzia zoonotiko

**TXINAKO “LAU LABEEN”  
ATZEAN [GUNE  
INFEKZIOSOENAK,  
WUHAN DA HORIETAKO  
BAT], MUNDUKO  
INDUSTRIA-ZENTROEI  
EUSTEN DIEN LABE  
FUNTSEZKOAGO BAT  
DAGO: NEKAZARITZAREN  
PRESIO EBOLUTIBOAREN  
ELTZE ETA URBANIZAZIO  
KAPITALISTA**

deritzonaren ondorioa da ia beti, hots, infekzio horiek animalien-  
dik gizakiengana salto egiten dutela

esateko modu teknikoa. Espezie bategatik besterako jauzia ukipenaren hurbiltasunak eta erregulartasunak baldintzatzen dute, eta horrek guztiak sortzen du gaixotasunak ebolutzionatu behar duen ingurunea. Gizakien eta animalien arteko interfaze hori aldatzen denean, gaixotasun horien eboluzio-baldintzak ere aldatzen dira. “Lau labeen” atzean [Txinako lau ingurune infekziosoenak, Wuhan da horietako bat], beraz, munduko industria-zentroei eusten dien labe funtsezkoago bat dago: nekazaritzaren presio ebolutiboaren eltzea eta urbanizazio kapitalista. Honek guztiak gero eta suntsigarriagoak diren izurriteak sortzen diren ingurune ideala eraldatu egiten du, jauzi zoonotikoak egitera bultzatzen du, eta, orduan, giza populazioaren bidez modu oldarkorrean jaurtitzen dira. Horrez gain, ekonomiaren bazterretan gertatzen diren prozesu biziak ere badaude, non tokiko ekosistematan gero eta zabalagoak diren nekazari-



STRINGER (GETTY) / EPV



tza politiketik, gero eta jende gehiago andui basati gehiagorekin kontaktuan jartzera bultzatzen duten. Koronabirusik berrienak, jatorri basatian eta munduko ekonomiaren nukleo oso industrializatuan zeharreko bat-bateko hedapenean, gure izurrite politiko-ekonomikoen aro berriaren bi dimentsioak erakusten ditu” (Chuang kolektiboa).

Baina ez dezagula pentsa kontu hauek eztanda egin dutenik Txinako bilakaeragatik. Ondo ezagunak dira XVIII. mende amaieratik Londresko behitegi erraldoietan lehenbizi, eta Afrika hego-ekialdean gero, antzeko izurriak zabaldu ziren. Pandemia haien aurkako borroketan oinarritzen dira egunotan erabiltzen diren neurriak: abere-jatorriak suntsitu, jendea isolatu, higie-ne neurriak aplikatu eta, asmatzen direnean, txertoak. Azken hauen apologistek, gerora, gaixotasunen desagertzearen arrazoi bakartzat jotzen dituzte.

Bilakaera bat suertatu da lehen industrializazioa izurrite haietatik XXI. mendetara, eta horrela laburbiltzen du aipaturiko artikulua: “XVIII. mendeko azia-nda in-gelesen epidemia, argi eta garbi kapitalista zen azia-nda izurrite baten lehen kasua izan ziren, eta Afrikan 1890eko hamarkadako behi izurritearen agerraldia inperialismoaren holokausto epidemiologi-ko-rik handiena [Afrika hegoaldeko ganaduaren %80-90 desagerrarazi zuena eta sekulako hondamendia, gosetea, eta abar]. Gerora “gripe espainiarra” etorri zen, [Lehen Mundu Gerraren mobilizazioak hedatua 1917tik aurrera eta 50 milioi pertsonarekin akabatu zuena], proletalgoaren baitan hedatu zen lehen kapitalismoaren izurrite global gisa uler litekeena”.

Bilakaera esponenzial baten ondorioz, mugara iritsi gara azken hamarkadotan: “Bizitza salbaia” desagertua da ia, eta gero eta presio handiagoa jasaten duten azken



Ospitale bat Kansasen (AEB) 2018ko “espainiar gripean”. / WIKIPEDIA

inguruneetan, lehenago isolatuta zeuden birus-anduiek azkarrago eta bortitzago zeharkatzen dituzte desagertzeaz zeuden mugak. Ailegatzen direnean bizi baldintza oso eskasetan bizi diren milioika biztanleen inguruetara –elkaduran, higie-nean, lan- eta etxe-baldintzetan, osasun zerbitzuetan, kontaminazioan...– lehergailu kontrolaezina bihurtzen dira. Gehitu horri egungo interkonexio globala, eta bertan dugu egungo eta datorren munduko errealitate gordina.

## EKONOMIA, PRODUKZIOA

Pandemiarekin batera eztanda egin duen krisi ekonomikoaz, haren albo-kalte bati buruz bezala ari gara ia: berarekin etorriko den desazkundeaz, atzeraldiaz, langabezia... 1918ko pandemiaren inguruko egoerarekin alderatuz, txikiagoak izango badira ere eragindako hildakoak, ondorengo krisi ekonomikoa askoz ere larriagoa izango da: “Azken lau hamarkadetan garatu den sistema ekonomiko globala 1918koa baino askoz ahulagoa da,

# Pentsatzeaz



EL PAÍS / SR. GARCIA

**P**entsamendu erradikala agertzen den bakoitzean, dikotomia baten aurrean ipintzen gaituela dirudi, hautu moral baten aurrean, non baten edo bestearen alde jartzeak, parekoa etsaitzat bihurtzen duen.

Hori da pandemia-gerra-pentsamendua; anbiguotasunerako tarterik uzten ez duena.

Pentsamenduaren ezaugarriak behinena da muturreraino jo deza-keela; jakinda ere, muturrera jotze hori “ekintza programa” bihurtu nahi dugunean, absurdura goazela.

Pentsamendua orokortasun psikiko baten parte da, eta beste ikus-puntuetatik begiratzera behartzen gaitu –pizten duen erresistentzia-tik, ezin ulertutik, beldurretik...–.

Pentsamenduaren autonomiaz jabetu behar dugu, baina baita haren morrontzez ere.

Pentsamendua ubikua da. Eraman gaitzake posizio oso ezberdinetara, kontrakoetara. Enpatiarako gaitasuna eskatzen du, baina ez, nahitaez, identifikazioa.

Pentsamenduak ideologia du etsai nagusia: ideiez –aurreiritziz, dogmez, formulez, katiximez– mo-zorrotutako errezetategia, zeinak errealtatearen anbiguotasunetik, kontraesanetatik, atzaparkadetatik babesteko erabiltzen dugun. Gu eta Besteen arteko lubaki eta muga zorrotzak eraikitzen ditu, eta ideiez edo hitzez harrika ibiltzeko aukera kontsolagarria ematen digu.

Krisietan, zuzentasun politikoaren arabera murrizten dira esan litezkeen hitzak eta esamoldeak. Zerrenda osa liteke: “Datuek” hartzen dute lehen lerroa –kutsatuak, artatuak, txertatuak, hildakoak...–, estatistikaren ideologia, *Big Data*-ren aroa. Eta “adituak”, “zientziak”.

Uste oso zabalduaren kontra, oso gutxi dira ondo pentsatzen dakitenak. Horiek badakite pentsatzea beren buruarekin borroka batean sartzea dela; guardia jaitsita, zauritua eta jipoitua amaitzeko liskarretan murgiltzea. Defentsetan dituzten arrakalak zabaltzeko prest egon, eta errealtatearen ustekabeko osagarriari ongi etorria ematea da pentsatzea.



nahiz eta orduan Europa suntsitu-  
ta egon Gerra Handiaren ondoren”,  
zioen Guy Standing ekonomialariak  
joan den martxoan. Eta hilabete  
geroago Édouard Philippek, Fran-  
tziako lehen ministroak, honako  
hau: “Osasun larrialdiaz gain, eko-  
nomiaren krisi izugarria eragingo  
du, munduaren historian, sekula ez  
da gertatu halako geldialdi masi-  
bo eta orokorrik orain arte”. Beste  
era batera, horrela dio Mario Laz-  
zaratoki: “Kapitalismoa ez zen inoiz  
atera 2007/2008ko krisialditik. Bi-  
rus hau kapitalisten, bankarien eta  
politikarien ilusioan txertatu da [eta  
populazio osora zabaldu], eta dena  
lehen bezala izan dadin lortzeko,  
protesta-mugimenduek eragin ezin  
izan zuten greba orokor, sozial eta  
planetarioa aldarrikatu dute haiek.  
Bere funtzionamenduaren blokeo  
osoak erakusten du, mugimendu  
iraultzailerik ezean, kapitalismoa  
inplosionatu egin daitekeela, eta ha-  
ren usteltzea mundu guztia kutsa-  
tzen ari dela. Horrek ez du kapita-  
lismoaren amaiera esan nahi, baizik  
eta haren agonia luzea, nekagarria,  
mingarria eta basatia izan litekeela”.

Azken krisi sanitaria itzuliz,  
“azken 50 urteetako errentak biltze-  
ko mekanismoak belauniko jarri du  
osasun-sistema, eta ahuldu egin du  
osasun-larrialdiei aurre egiteko ha-  
ren gaitasuna. Osasun-arretako gas-  
tuetan egindako murrizketek gain  
(37 milioi dolar azken hamar urteot-  
an Italian, esaterako), medikuen  
eta osasun-langileen kontrataziorik  
ezak, ospitaleen etengabeko itxierak  
eta produktibitatea handitzeko gai-  
nerako jardueren kontzentrazioak,  
‘New Public Management’-eko dog-  
mari jarraitzen dio; ‘zero ohe, zero  
stock’ kriminala besterik ez dute  
aplikatu. Asmoa da ospitalea indus-  
triaren ‘just in time’ (behar den une  
berean) fluxuen logikaren arabera  
antolatzea: ez da ohe bakarra hutsik  
geratu behar, hori galera ekonomikoa  
baita. Kudeaketa hori ondasunei apli-



Artistak lanean New York-eko Times Square-n. / AP

katzea –langileak aipatu gabe!– ga-  
tazkatsua izan zen, baina gaixoenga-  
na zabaltzea erotzeko modukoa da.  
‘Zero stocka’ ekipamendu medikoei  
ere badagokie; eta sendagaiei, mas-  
karei eta abarrei, industriak duen

ko monopolioak ukituko diren seina-  
lerik adierazi... Jasaten ari garen ka-  
pitalismoa, formula batean jartzeko,  
goi-teknologiako XIX. mendeko kapi-  
talismoa da, darwinismo sozialaren  
funtza duena –garaiko klase-borro-  
ka heroikorik gabe!–, ‘Kapitalismo  
Digitala, Ezagutzaren Kapitalismoa’  
baino gehiago. Zientziak eta teknolo-  
giak ez dute etekin-makinaren izaera  
zehazten, klase-desberdintasunak  
sortzea eta erreproduzitzea errazte-  
ko baino ez dute funtzionatzen!”.

Atal asko ditu egoera honek, bai-  
na garbi edukitzea merezi duena,  
haren barne logika da, aspalditik da-  
torrena eta aspaldian irauteko se-  
kulako ahaleginean ari dena: orain  
arteko krisi larrietan bezala, sistema  
osoa amildegiaren ertzean jartzen  
dute kolapso gero eta indartsua-  
goek, baina, azken batean, sakrifi-  
zio masiboen bidez gainditzen dira,  
merkatua/biztanleria soilduz eta  
aurrerapen teknologikoen erabile-  
ra zapaltzailea areagotuz. Azkenik,  
praktika mediko modernoak balia-  
tzen dira hori guztia sendotzeko.

**ORAIN ARTEKO  
KRISI LARRIETAN  
BEZALA, SISTEMA  
OSOA AMILDEGIAREN  
ERTZEAN JARTZEN  
DUTE KOLAPSO GERO  
ETA INDARTSUAGOEK**

egoera berean baitaude, eta, beraz,  
ez dute arnasgailurik stockean, eta  
horiek ekoitzi behar dituzte behar di-  
tuztenean. Denak egon behar du ‘just  
in time’; hori da lege sakratua. Krisi  
honen erdian, inork ez du orain arte-

# Paradoxen politizazioa

## HIPERREALITATE APOKALIPTIKOAN

Hipererrealitatea gauzen munduari buruzko irudimenezko plano agregatu bat da, ordeztzen duen horrek baino existentzia-maila handiagoa hartzen duena. Hautematen dugun guztia irudi, simulazio eta birtualizazioen bidez neurtzen da: sarean gertatzen denak pisu handiagoa du espazio/denbora ukigarrian gertatzen denak baino. Egungo ekonomia, horren muturreko lekuko: finantzek agintzen dute, eta finantzen “errealitatea” birtuala da, “inork menderatzen ez dituen” ausazko algoritmoek gobernatua. Aspaldian hiperrealitate batean bizi baginen ere, bakoitza bere bakaradara behartu gaituen mobilizazio orokorrean, areagotu baino ez da egin hura.

“Apokalipsiak” *errebelazioa* esan nahi du; zehatzago, ustekabeko eta, beraz, katastrofikoa den supituko amaiera batek agerian uzten duen errebelazioa. Askoren baitan dagoen konbikzioa da: errazagoa zaigu munduaren akabera irudikatzea kapitalismoarena baino. Edo errazagoa da milaka egoera apokaliptiko irudikatzea kapitalismoak gauza guztietan duen erabateko inpregnazioaren aurkako norabidean izandako aldaketa esanguratsu txikiaena baino.

Lehen konstatazio bat: aurreneko aldia dugu historia osoan non saiatzen ari garen, orain artean “hondamendi naturaltzat” hartutako zerbaite, garatu ditugun baliabide tekniko-zientifikoen bitartez aurre hartu eta gaingitzea erabaki



## ERRAZAGOA ZAIGU MUNDUAREN AKABERA IRUDIKATZEA KAPITALISMOARENA BAINO



Mediku baten jantzia  
XVII. mendeko izurrite beltzean.

WELLCOME COLLECTIO

duguna. Jainkoa izan ala naturaren elementuak, orain artean eraikitako sistemek bitartekaritza lana egitera baino ez ziren ausartzen, haien irarengandik babestu edo haiekin negoziazio erritualak saiatuz. Orain, ordea, geu jarri gara jainkoe eta naturaren gainean, eta geuk hartu nahi dugu jainkoren edo naturaren agente makila.

Egoera ulertzeko, Luca Peltrier berriki emandako “Apokalipsi berezitua” adiera deritzot egokiena. Aro honetan bizi duguna *mundu* baten amaiera da, azken mendeetan aurrerapen etengabearen mitoan eraikia genuenarena. Orain ordea, jabetzen ari gara geure ondokoek ezingo dutela nahitaez gu baino “hobe bizi” zentzu material eta sozialean. Zehazkiago, beraiei tokatuko zaiela gure gehiegikerien fakturak ordaintzea.

Tupustean gainera jausi zaiguna iragarria zen aurretik ere: nork ez zuen espero hondamendi finantzario-ekonomikoa? Nork ez zuen poloen urtzearen, neurritz kanpoko suteen, urakan ugalduen, intsektu polinizatzaileen desagertzeen berririk? Eta zer dela eta jarraitzen zuen denak berdin guregan? Zergatik gertatzen da “disonantzia kognitibozko” egoera hori? Lehenik eta behin, fenomeno horiek onartezinak zaizkigulako gure askatasun-idealari eusten badiogu. “Gure patua aukeratzeko edo eraikitze askatasuna” deitzen duguna gure kontsumo-gaitasunarekin lotuta dago; eta etorkizuna, merkatu batek eskaintzen dituen aukeren arabera imajinatzen dugu.







## BIOPOLITIKA, AZKEN BIDE GURUTZEAN

“Noiz itzuliko gara normaltasunera?” amesten dugu, baina badakigu alferrikeri ari direla sasi-apez aditu onbera guztiek ordena berreskuratzeko eginahalean. Eutsi egin behar-ko genioke salbuespen-pertzepzio horri, bakoitzak ahal duen dosiaz. Gordinki esanda: “Muga berria mozala da. Arnasten duzun aireak zurea baino ez du izan behar. Muga berria zure epidermisa da. Lampedusa berria, zure azala da”, Paul B. Preciadok adierazi bezala. Eta Europak eraiki dituen mugez ari denean: “Muga nekropolitiko berria, Greziako kostaldetik etxe pribatuko ateraino uzkuritu zaigu. Muturrean egin dizu eztanda egunotan Calais-ek... Birusak, gure irudiaren arabera jokatzeko du; estatuen mugetan dagoeneko lanean ari ziren kudeaketa biopolitiko eta nekropolitiko nagusiak erreplikatu, gauzatu, areagotu eta herritar guztiengana zabaltzea besterik ez du egiten. Horregatik, jendarte bakoitza, mehatxatzen

duen izurriteak eta haren aurrean antolatzeko moduak definitzen du”.

Ez da uneko ateraldia. Aspaldiko gogoeta bati jarraitzen dio Preciadok. Jendarte bakoitzak unean une-



**MUGA BERRIA  
MOZALA DA.  
ARNASTEN DUZUN  
AIREAK ZUREA BAINO  
EZ DU IZAN BEHAR.  
MUGA BERRIA ZURE  
EPIDERMISA DA.  
LAMPEDUSA BERRIA,  
ZURE AZALA DA”**

**PAU B. PRECIADO**

ko gaixotasun ikonikoaren inguruan bere immunizazioa landu du, argi eta garbi Modernitatea abiatu zenetik: sifilia, tuberkulosia, minbizia,

hiesa... Roberto Espositoren hitzak erabiliz: “Biopolitika oro [bizitzaren eta politikaren arteko lotura] da immunologikoa: komunitatea definitzen du, eta hierarkia bat ezartzen du non immunetzat hartzen diren gorputzak eta arriskugarritzat jotzen direnak bereizten diren, azken hauek baztertzeko. Hori da biopolitikaren paradoxa: babes-ekintza orok komunitatearen definizio immunitarioa eskatzen du, eta horren arabera, komunitateak bere buruari emango dio beste bizitza batzuk sakrifikatzeko aginpidea, subiranotasunaren ideia baten mesedetan. Salbuespen-egoera, paradoxa jasan ezin horren normalizazioa da”.

Preciadoren hitzetan, “europarrok komunitate erabat immune gisa eraikitzea erabaki dugu, Ekialdera eta Hegoaldera itxia. Energia-baliabideen eta kontsumo-ondasunen ekoizpenaren ikuspegitik, Ekialde eta Hegoalde horiek, gure biltegi dira. Greziako muga itxita, Turkia eta Mediterraneo inguruko uharteetan eraiki ditugu aire zaba-





leko atxiloketa-zentro handienak. Hala, immunitate-forma bat lortuko genuela amestu genuen. Paradoxa badirudi ere, Europaren suntsiketa, Europako komunitate immune bat eraikitzearekin hasi zen, europarron barne mugimendu askea sustatuz, eta erabat itxiz atzeritarrentzat eta migratzaileentzat”.

“COVID-19aren kudeaketa politikoak, bizitzaren eta heriotzaren administrazio gisa, subjektibotasun berri baten inguru zehatzak marrazten ditu. Krisiaren ondoren asmatuko dena, komunitate immunearen utopia berri bat da, baita gorputza kontrolatzeko modu berria ere. COVID-19ak egiten duen tekno-patriarkatu neoliberalaren subjektuak ez du azalik, ukiezina da, ez du eskurik. Ez trukatu ondasun fisikorik, ez ukitu txanponik, kreditu-txartelarekin baino ez ordaindu. Subjektu berri horrek ez du ezpainik, ezta mihirik ere. Ez du zuzenean hitz egiten, ahots-mezu bat uzten du. Ez da biltzen eta ez da kolektibizatzen. Erabat gizabanakoa da. Ez du

aurpegirik, maskara du. Haren gorputz organikoa ezkutatu egiten da, maskaratzat balio duten protesi zibernetiko zenbaiten atzean: posta elektronikoko helbidearen maskara, Facebook kontuaren maskara, Instagramen maskara. Ez da eragile fisiko bat, kontsumitzaile digital bat baizik, tele-ekoizle bat, kode bat, pixel bat, banku-kontu bat, izen bat duen ate bat, Amazonek bere eskaerak bidal ditzakeen helbide bat”.

### **NORMALTASUN LETALA ETA ZENBAIT ZEDARRITZE ARGIGARRI**

Modu askotara ari zaigu errepikatzen aspaldian genekiena: orain arteko “normaltasuna” eromena da; ekonomikoki eta ekologikoki, sostengaezina; sozialki, kriminala. Jakinarazten ari zaigu, baita ere, krisi hau iragarria zela eta ez duela amaitzeko itxurarik. Politikarien azken asteetako mezuek ez dute zalantzarako tarterik uzten: “Ahaztu lehen-go garaietako ‘normaltasuna’; gure harremanetarako eta sozializatzeko

ko formak errotik aldatu beharrean gaude, ez soilik bizirauteko, baita komunitate posible bakarreko baldintza gisa ere”. “Obeditu!” oihukatzen zaigu, “izan arduratsu!”, nondik eta egoera honetara ekarri gaituztenen ahoetatik. Betiko dikotomia perbertsoa muturrera eramanez: “Nire Ordena ala Kaosa”. Baina zer egin akabera eta agintzen zaigun ordena gauza bera eta bakarra direnean?

Lehen aipatu bezala, apokalipsia hau mailakatua da. Munduko leku askotan modu gordinenean gauzatu da dagoeneko, eta beste zenbaitetan –Indian, Ameriketako lurralde askotan, kasu– oso gertutik bizi dute. Baina bada egoeraren beste aldagai bat alde batera utzi beharko ez genukeena: Trump, Bolsonaro, Salvini edo Orban bezalako agintarien gorakadan irudikatzen dena. Zer dela eta dute arrakasta agintari horiek? Haien sostengatzaileek zuzen edo zeharka jasotzen duten diskurtsoa hauxe da: “Utzi kontuok gure esku eta zuek, katastrofetik libratuko direnen artekoak izango zarete. Geuk

# Untoreak eta mozalaren legea

“L’untore! dagli! dagli! dagli all’untore!”  
 (“Koipeztatzailea! Jo eta su koipeztatzailearekin!”)  
 A. Manzoni, *I promessi sposi* (“Ezkongaiak”), 1827

**K**utsatzaile” kontzeptua, medikuntza hipokratikoak ezagutzen ez zuena, azken mendeetako izurriteekin finkatu da. Eta agintarien neurriek eta kanpainen gizabanako bakoitza kutsatu potentzial bihurtzen dute, terrorismoaz ardurtzen direnek herritar bakoitza terrorista potentzialtzat hartzen duten bezalaxe. Aginduak betetzen ez dituen kutsatu potentziala, kartzelarekin da zigortua. Bada, gainera, eramaile osasuntsu edo goiztiarraren soslaia. Eramaille osasuntsu horrek jende ugari kutsatu lezake eta horrek bihurtzen du are arriskutsuago.

“Normaltasun berrira” eta “txertoaren zain” gauden honetan, denok gabiltza elkarren zelatari, nork bete-

tzen edo hausten dituen agintariak edo norberak ezinbestekotzat jotzen dituen arauak. Gerra sasoiaren bezala, sintoma paranoikoak garatzen.

Mozala objektu bereizgarri egin zaigun honetan, ezin ahanzi urtetan eta hamarkadatan sustatu dugun eztabaida sutsua: “Onargarria al da emakume islamiarrak aurpegia eta gorputza estalita –burka, burkini, niqab, txador, al-amira, hijab, xaila...– gure artean ibiltzea? Zer da estalki horiekin estaltzen dutena; zeren edo noren izenean; zeren edo noren aurka; zeren edo noren aginduz?” Entzuna dugu Txinan lintxamenduak gertatu direla pandemia hedatu ondoren, norbait kalean mozalik gabe zebilelako... Ez dira txantxetarako kontuak.

Bestalde, asko kexatu gara azken bost urteetan Espainiako Gobernuak indarrean jarri duen *Mozal-Legea*-gatik, hemengo poliziek hain gogo onez bete arazi dutena. Baina, harrigarriki, badirudi denok gaudela prest onartzeko zerbait are badaezpadakoa, eta justifikazio zientifiko edo arrazional oso zalan-tzagarria duena. Moda diseinatzaileak hasi dira haien bilduma berrietarako prestatzen: horra azken muga beldurgarria.

Orain gutxi arte arbuigarria zena, otzanki onartzen dugu kutun magiko baten modura. “Infernua besteak zirela” aspaldian genekien, baina obediencia-bulkada batez, urrunago nahi dugu iritsi oraingoan: “Ez ukitu, ez besarkatu, ez hurbildu; ezta zure burua ere, zeu baitzara duzun etsairik zitalena!”.

Gogoratzen al duzue ez horren aspaldian hedatu zen “besarkadak musutruk” kanpaina xelebrea? Daramagun bidetik segitzen badugu, berehala hasiko dira zurrumurruak: badirela oihaletako leku ezkutatuak non jendea elkartzen den legeak hautsi eta elkarri eskua emateko, edo besarkatzeko edo musukatzeko... Eta ongi dakigu zertan amaitzen diren kontu lizun horiek guztiak!





garbituko dugu benetako Herria zikintzen duen zabor hori guztia: atzerritarrek, pobreak, musulmanak, alferrak, marikoiak...". Eta sostengatzaile horien salbaziorako behar diren baldintzak "negoziatzen" ari dira elite horiek beraiek ordezkatzeko dituzten eliteekin, hondamendiaren baitan eta ondoren salbaziorako beharko litzuketen neurriekin. Zein mailaraino neurri horiek diren jasangaitzak, kriminalak edo suizidak, hori gure salbatzaileen eta haien adituen esku uzten dugu. Ez da historian lehen aldia izango jende uholdea urkamendira kantari desfilatzen ikusiko dena.

Gurera etorri, ez al dago jeltzaileen hegemonia gero eta argiagoan, eta baita haren laguntzaile edo oposizio politikoek zuzentzen dizkieten kritiketan, zentzu berdineko promesa bat? Ez al dugu "Euskal Herria Subirano" baten ametsaren azpian gure herri maitatuaren burbuila bat eraikitze amets-ahalegin itsu antzua? Ez al ditu gure indar behineak xahutzen amets horrek, "krisi honen okerre pasatuta, denok bat eginda gure ongizateari eusteko gai izango gara beste behin ere" bezalako ameskeriatan?

Italian egin zuen pandemiak ez-tanda European, baita inoizko eztabaida gogorrenak eragin ere hainbat jarrera publikoen artean. Detonatazalea, Giorgio Agamben *Epidemia baten asmakizuna*, otsaileko artikulua. Honek eta haren ondorengoek erantzun bortitzak eragin zituen beste pentsalari europar eta amerikar askorengandik, eta aldeak gorabehera, lerratze argi bat probokatu du: marxista iraultzaileen erreferentziazko pentsalariak (Badiou, Zizek, etab.) alde batetik eta, bestetik, "foucaultiar" etiketapean jarri litezkeenak (Agamben, Espósito, Preciado, etab.). Bistan dena, talde berekoen artean sekulako aldeak daude, baina goazen muinera. Batzuk, "salbuespen egoeran" eta



honen inplikazio guztietan jartzen dute azpimarra. Besteek, berriz, onartzen dituzte hartu diren neurriak, askotan Txina eta Hego Korea jartzen dituzte jarraitzeko eredu-

eta gainontzekoei gauza bera egin zezaten eskatu], egia da, gero eta inperatiboagoak dira, baina ez dute eskatzen, lehenengo azterketa batean behintzat, pentsamendu berri bat aztertzeko edo eratzeko ahalegin handirik". Zizek: "Komunismo zabal baten ordua heldu da... Ez naiz ni, OMEko zuzendaria da esaten ari dena, nazioz gaindiko lankidetzak behar dugula gainean dugun hau eta datozenak gainditzeko... Ez da utopia; berekoieriaz ere geratzen zaigun irtenbide bakarra baizik".

Bestaldekoek ez dute jarrera hain propositiborik. Zerbait aipatu dut Paltrinierik edo Preciadok esan dutenaz, baina ez legoke gaizki kontuan hartzea honek guztiak duen *déjà vu* usaina. 70eko hamarkadan, kapitalismoaren bilakaerak ekologian zituen eraginen inguruko lehen alarma larriak hasi zirenean publiko zabalera heltzen, Mendebaldeko ezkerreko pentsalari handi askok marxistek zuten hegemonia nabarmen ahultzen eta pitzatzen hasi zirenean, estilo bereko "gerra" piztu zen. Foucault izan zen intelektual

**EZ AL DUGU  
"EUSKAL HERRIA  
SUBIRANO"  
BATEN AMETSAREN  
AZPIAN GURE HERRI  
MAITATUAREN BURBUILA  
BAT ERAIKITZEKO  
AMETS-AHALEGIN  
ITSU ANTZUA?**

tzat, eta "komunismoaren gaurkotatunaz" ari zaizkigu. Badiou: "Epidemiak berresten duena da, nolabait, ezer berririk ez egungo zeruaren azpian... Betebehar horiek [modu diziplinatu konfinamendua bete,



“ez lerratu” haietako bat. Ivan Illich beste bat. Lehena ez bezala, ia erabat ahaztua izan zen gerora bigarre-na. David Cayley: “Illich-en arabera, medikuntza garaikideak botere politikoa du une oro, baina are gehiago zabal daiteke krisiaren erritualizazioarekin. Horrek, militarrek bakarrrik erreklama dezaketen lizentzia ematen dio... XX. mendeko bigarren erdian ‘gure gorputzen eta geure bu-ruaren’ esperientzia, kontzeptu eta zainketa medikoen emaitza bihurtu zen”. Illichen tesiak indar handiz zabaltzen ari zirenean jaso zuten neo-marxisten eraso zuzena. La-burbilduz: zerbait borrokatu behar bada, norbere dogmetatik abiatzen ez diren planteamendu kritiko eral-datzaileak dira. Are gehiago haiek ere gogoeta eta ekimen sakonak bul-tzatzeko gai badira.

### PARADOXEN POLITIZAZIOA

Egoerari irtenbide posibleak bila-tzerakoan, hainbat joera okerrei egin beharko genieke aurre. Ho-rietako lehena inertzia da. Bestea, pentsamenduak duen prentsa txar-

ra gainditzea. Erantzun sinplerik ez dagoenez –inork ez daki non eta nola egongo garen hilabete gutxi barru– ezinbesteko dugu paradoxe-tan murgildu eta mugitzen ikastea. Azken horien artean, perbertsio-ra garamatzaten asko jartzen zaiz-kigu aurrean egunotan: “Hurkoa ez ukitzea da maitasun seinalerik behinena”; “aginduak obeditzea da erresistentziarik eraginkorrena”, eta abar luzea.

Politizazioari lotuta dago, hale-re, paradoxarik behinena. Uste he-datua da politizatua ideologia bati gogor atxikia den norbait dela. Bai-na politizazio eraldatzailearentzat joera hori oztopo nabarmena da. Geure lan harremanek, familiakoe-k, intimoenak nahiz zabalene-k, eza-gutzen ez genituen mugetara era-maten gaituzte; errealtateak gure irrika edo desioekin egiten du talka, eta orduan jabetzen gara agintea-ren eta egiturazko agintekeriaren helmenez; eta zein gotorrak izan litezkeen klase interesak, eta zein barneratuak ditugun haien behar-re-tara makurtutako joerak. Eta egoera

gatazkatsu horiek guztiak hautatze-ra behartzen gaituzte: horra politi-zazioaren lehen urratsa.

Onartu behar ditugu mugak, eta “alternatibarik” eskaintzea, ezinez-koa zaigula. Dolu sakon bat bizi-tzea tokatuko zaigu, agian, uste edo ilusio asko airean desegiten direla ikusten dugunean. Asko dira dio-tenak “Ilustrazio berri bat behar dugula”, baina horra Gabilondoren gaztigua: “Ilustrazio berri bat beti ere atzeranzko pentsamendu kon-tserbatzailea da. Europaren agonia amaiezinaren adierazpen argiena da... Bada garaia zilbor europarrari begiratzeari uzteko eta kanpokoek zer dioten entzuteko”. Paradoxak.

Arestian aipaturiko Illichen pen-tsamenduaren haritik, azken bat: “Osasun publikoaren sistema baten aurka zaude, beraz?”. Inondik ere ez. Kriminala izan da prozesu pribatizatzailea, eta osasun publikoaren kudeaketa merkatuko errentagarri-tasunaren parametroetara makurtu izana. Osasun publikoa defendatzen dut, eta baita ere medikalizazioaren kritikarik erradikalena.





Esperantzarako joera naturalari eutsiko diot lerrook amaitzeko. Ezin dugu ahaztu krisi honek balio izan duela, baita ere, harrotzen ari ziren hainbat mugimendu zapaldu eta bertan behera uzteko; pandemiaren aitzakiaz ez da ezer beste gertatzen munduan: ez askoz ere hilgarriagoak diren eta sendagarri litezkeen hainbeste epidemia –milioika haurren heriotza eragiten duena, besteak beste–; hondamendi klimatikoak; emakumeen eta haurren aurkako indarkeria “naturalizatu”, gerrak eta arpilatze kolonialak... Pablo Sastre Forestek: “Makinatuta, bakanduta, sometituta... Kondizio guztiak ematen dira, ohiz kanpokoa arruntu dadin. Zergatik ez, datorren urtean, beste birus bat etortzen denean...? Ez da jadanik izango, Txernobilen izan zen bezala, *behar biziz*, ezpada, orain ezkero... *halabeharrez*. Aste hauetako agin-hitza: *bakartzea*, bera da oroz gain saihestu behar duguna. Gure hitzak, berriz, beldurretik, obediencia itsutik, bizitza eurekin daramakiguten makinetatik *apartatzea*, eta elkarrengana *biltzea*, izan behar lukete”.

Joseba Azkarraga Etxagibelen hitzak dira azken hauek: “Benjaminnek modu profetikoan aurreratu zuen, marxismoaren baitatik, iraul-

**EZIN DUGU AHAZTU  
KRISI HONEK BALIO  
IZAN DUELA, BAITA ERE,  
HARROTZEN ARI ZIREN  
HAINBAT MUGIMENDU  
ZAPALDU ETA BERTAN  
BEHERA UZTEKO;  
PANDEMIAREN AITZAKIAZ  
EZ DA EZER BESTE  
GERTATZEN MUNDUAN**

tza akaso ez zela progresoaren, garapenaren eta modernizazioaren trenera igotzea, baizik eta tira egitea tren horren larrialdi frenotik. Automata hutsa baita makinista. Trena ziztuan doa, ezin da gelditu, ezta norabidez aldatu ere. Abiadu-

rak irentsita, errailetatik atera beste destinorik ez du... Egoera zinez da korapilatsua: kapitalismoaren geldialdiak sufrimendua tonaka barreiatuko du, baina bere jardura osasuntsuak, hazkunde esponentzial etengabearen logika gidari, are sufrimendu handiagoa dakarren bide ekoizida eta suizidara lotzen gaitu. Birusaren osteko territorio ekonomiko kiskalian, sistema lehenatzea ezin da opzio bat izan”.

Sakoneko aldaketa politiko batek eskatuko digun kemenak, argitasunak eta sakrifizioarako prestutasunak zerikusi handiagoa dute egoera apokaliptikoetan pizten eta gartzen diren posizio ausartekin, haien eldarnio eta arrisku guztiak gutxietsi gabe. Parean aurkituko ditugun erresistentziak hain diraitsuak eta gotorrak, puntu honetara helduta, kalkulutan hastea eta ezintasunean jaustea gauza bera eta bakarra izango dela. ●

#### OHARRRA:

ARGIaren webgunean lanaren bertsio luzeago bat dago.

**INPRENTA**  
Offset eta digitala

**DISEINU  
GRAFIKOA**

DISEINU  
EDITORIALA

**antza**

KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

*Txikitik eragiten  
Komunitatea zaintzen  
Bidea eraikitzen  
Aurrera!*



**ALDIZKARIAK  
ESKU-ORRIAK  
KARTELAK  
LIBURUAK  
EGUTEGIAK  
KATALOGOAK  
AGENDAK  
KOADERNOAK  
KARPETAK  
LOGOTIPOAK**



www.**antza**.eus

Zirkuitu Ibilbidea 2, 20160

**LASARTE-ORIA**

Tel. 943 370 738 · info@antza.eus